

"Kontakizunak"
Edgar Allan Poe
Euskaratzailea: Koro Navarro
Ibaizabal, 2001

Edgar Allan Poe-k ez du aurkezpen handirik behar. Ipar Amerikako idazle honen bizitza urtez luzea izan ez bazen ere (1809tik 1849a arte), literaturan betirako lorratza utzi duten idazlanak egin zituen. *Kontakizunak* izeneko liburu honetan bere narratiborik ezagunenetariko batzuk biltzen dira, burutu zuen ildo bikoitzaren ordezkari: izumenezko istorioak eta misteriozko istorioak. Izan ere, Poe-ren literaturan bi indar, itzuraz kontrajarriak, batzen dira. Alde batetik, izuari dagokionez, literatura gotikoarekiko zorra du idazleak. Honelako istorioek (adibidez, "Usher Etxearen hondamena" edo "Putzua eta pendulua") ohiko paisaia gotikoa erakusten dute. Elementu fantastikoen presentzia ere badago, baina elementu hauek batez ere pertsonaien psikologiaren jokaera bitxian agertzen dira, kanpoko errealitatetzat har daitekeen horretan bainoago. Hauen ondoan misteriozko istorioak daude. Hauetan, ikertzaile baten buru arrazionalistak misterioaren korapiloa askatu nahi du, indar deduktibo hutsei esker ("Marie Rogeten misterioa", adibidez). Egia da gaur egungo irakurleak ez direla honelako istorioekin gehiegi ikaritzen, baina dudaezina da idazle honen trebezia miresgarria psikologia gaixoti baten gorabeherak islatzeko.

El Correo, 2001-07-11